

UDAKO "ABENTURAK" LISTORRETAN

Aiako harria Natura Parkean dagoen Listorretako natur eremua ezagutzera emateko eta balioztatzeko jarduerak burutuko dira. Errenteriako Udala, Gipuzkoako Foru Aldundia eta Gipuzkoako Parketxe Sarea Fundazioak elkarlanean egitarau berezia prestatu dute **2017ko udarako** Aiako harria Natura Parkean (Natura 2000 Sarea). Bost jarduerak Listorretako aisialekuan burutuko dira, Errenterian.

• Ekainak 16, ostirala: Berreskuratutako hegaztien askatzea

Arrano Etxean sendatutako hainbat hegazti askatuko dira. Zentro honetan arrazoi desberdinak direla medio zauritutako edo gaixotutako animaliak sendatzen dituzte eta hauek ahalik eta lasterren beren ingurune naturalera itzultzea da haien xedea.

Arratsaldeko 21:00etan egingo da saioa, bi urubi askatuko direlarik. Izaki gautarrak direnez ilunabarrean egin beharra dago. Bertaraten direnak taberna inguruan elkartu eta, oinez egin ondoren, leku egoki eta eder batean askatuko dira hegaztiok, berriro ere askatasunean hegan egiteko aukera emanez. Mikel Olano aditua izango da askapenaren arduraduna, animalioi oso ondo ezagutzen ditu eta bere ahotik entzungo ditugu azalpen guztiak.

Familian egiteko plan ederra proposatzen dugu beraz, hegaztiak gertutik ezagutu eta askatasunean mendira nola itzultzen diren ikusiz.

Elkargune-puntua: Listorretako etxola (taberna).

Prezioa: doakoa

Ordutegia: 21:00

• Uztailak 2, igandea: Narrasti eta anfibioak ezagutzeko irteera

Malbazargo hezegunean aurki daitezkeen igel, uhandre, musker edo beste hainbat espezie ezagutu ahal izango dira. Hezegune hau eta beste batzuk bertako faunaren bioaniztasuna hobetzeko helburuarekin sortu ziren, batik bat, anfibioena, ugalketa garaian duten zaugarritasunagatik.

Egunaren baldintzen arabera bigarren hezegune batera hurbiltzeko aukera dago, Pagosarderako hain zuzen ere, bertan bisitariak hamaiketako/bazkaria egiteko piknikgune bikaina dute gainera. Ibilaldiak ez du zailtasunik izango, adin guztietako herritarrei dago zuzendua.

Elkargune-puntua: Susperregi jatetxea.

Baldintzak: Plaza mugatuak daude, erreserba egitea beharrezkoa da.

Ordainketa: Egunean bertan, esku-dirutan.

Prezioa: 5 €

Ordutegia: 10:00-13:00.

- **Uztailak 30, igandea: Orientazio jolasa**

Partehartzaileek orientazioaren oinarrizko kontzeptu batzuk bereganatuko dituzte modu dibertigarrian izan ere Listorretako altxorra aurkitu beharko dute ipar orratz eta mapak erabiliz.

Orientazioaren oinarrizko kontzeptu batzuk azalduko dira eta orientatzeko erabili ohi den tresneria: iparorrratzak, mapak, planoak...Naturan orientatzeko erabili daitezkeen metodoak ezagutuko dira ere (eguzkia, izarrak, ilargia, zuhaitzak, goroldioa).

Elkargune-puntua: Listorretako etxola (taberna).

Baldintzak: Plaza mugatuak daude, erreserba egitea beharrezkoa da.

Prezioa: doakoa

Ordutegia: 11:00-13:00.

- **Abuztuak 8, larunbata: Aizpitarteko lehen gizakiak. Historiaurreko bizimoduari buruzko erakustaldi eta tailerrak**

"Aitzbitarteko Lagunak" Errenteriako Elkartearekin elkarlanean egingo den ekintza da eta helburua leizezulo hauetako historiaurreko gizakiaren bizimodua ezagutzea da. Horretarako, tailer ezberdinak burutuko dira: jaurtiketa historiaurreko propulsaizailearekin, sua pizten ikasi, historiaurreko margoak...

Elkargune-puntua: Listorretako etxola (taberna).

Prezioa: Doako jarduera da.

Ordutegia: 16:00-19:00.

- **Irailak 2, larunbata: Saguzarrak hurbiletik Kiko Alvarezekin.**

Saguzaharrak ezagutzeko ibilaldia, Listorretako aisialekuko etxolatik irtengo da arratsaldeko 20:45etan. Kiko Alvarezek, ugaztun hegalaria hauen ezaugarriak azalduko ditu: orientatzeko erabiltzen duten sistema, ernaltze zikloa, hibernazioa, espezie ezberdinak...Gainera gerturatzen direnek, aplikazio bati esker, saguzaharrak entzuteko aukera izango dute iluntzen duen bitartean, hau baita saguzaharrak behatzeko momenturik egokiena.

Elkargune-puntua: Listorretako informazio-puntua.

Baldintzak: Plaza mugatuak daude, erreserba egitea beharrezkoa da.

Prezioa: 5-12 urte bitartekoak 3€ / Helduak 5€

Ordutegia: 20:45-22:30.

Erreserba egiteko edo informazio gehiagorako:

943 49 42 48 / 688 89 50 68

arditurri@gipuzkoamendizmendi.net

www.parketxesarea.org

www.gipuzkoamendizmendi.net